

# Irribarre egin. Hemen dira madalenak!

**Etziko hiru txupinazoez iragarriko dute  
2024ko Madalen Jaiak hasi direla. 13oetik  
gora dira egitarauaren barruan dauden  
ekitaldi eta jarduerak • 22-34**

OSTIRALA, 2024ko UZTAILAREN 19a

***Madalenak***

**2024**

ERRENTERIA-ORERETA

• OARSO BIDASOKO •

**HITZA**



**Goieko**

GOI MAILAKO EKOLOGIA



943 634 536



[www.goieko.com](http://www.goieko.com)

Madalenak  
gozatu!

# Festa egarria laster batean itzaliko dute

**Bi egun baino ez dira falta urteko egunik handiena heltzeko, eta jai batzordeak ondutako egitarauaren barruko 130 ekitaldiekin gozatzeko. Has dadila festa!**

**IKERNE ZARATE GARTZIARENA**

Hasi da atzerako kontaketa. Bi egun baino ez dira falta txupinak eztanda egin eta festak hasteko. Igandean izango da hori. Baina asteburua izanik, aurreratu egin dira madalenak, eta bihartik hasita izango da zer gozatua Errenteria-Oreretan. OaingozHau dinamikaren barruan, gazteak izango dira protagonistak biharko Gazte Eguna-ekin, goizean hasi eta gaueko ordu

txikiak arte: joko, bazkari eta musika eskaintza zabala ondu dute. Ez da alde aurretik aurreikusitako ekitaldi bakarra; izan ere, Madalen Aurreko Txistulari Kontzertua egingo dute Zumardian gonbidatu handi bezain bereziarekin: Eñaut Elorrieta.


Egun handia igandean izango da. 14:00etan Herriko Plaza girotzen hasiko dira jai batzordeak antolatu duen herri bazkarian parte hartzen dutenek.



Unerik bereziena 19:00etan helduko da, txupinazoarekin. Suziria, Aizpea Otaegi alkateak nabarmen jarri duen moduan, «konpromiso eta inplikazio» eredu diren DYako boluntarioek piztuko dute. Horiek dira aurtengo omenduak, eta txupinaren eztandaekin lehertuko da festa Errenteriako Musika Bandaren Zentenarioa-ren erritmora. Berezia izango da momentu hori, hunkigarria, enegarrenez: plaza bat festari emanda, herri anitz bat dantzan eta kantuan, *txunpa, txunpa, txunpa* algaratsuan murgildua. Hitzez deskribatzea zail den momentua, bizi beharra dagoena, eta batez ere sentitu.

Txupinazo nagusia hori, baina ez bakarra. Aurten ere hiru txupinazo izango dira aukeran, eta nagusia bizitzeko bes-

**OIHALAK  
ARTILEAK  
IKASTAROAK**



**GOZATU MADALENAK!**  
Nafarroa hiribidea. 28  
ERRETERIA-ORERETA  
tel.: 843 67 17 34  
@blazmo\_wool



**IKUSI MAKUSI**  
Zure opari denda

Jostailu hezitzaileak  
Punta-puntako markak Kalitatezko jostailuak

Tel.: 943 52 88 53. Alfonso XI kalea, 3. Lokala. Errenteria - Oreretan



**orereta  
ikastola**  
AURRERA!

**ATERA KALERA,  
KALE EGIN GABE!  
GORA MADALENAK!**

erriola  
gunea

www.oreretaikastola.eus



## EGITARAU OSOA HEMEN

labur.eus.oarsoagenda

### Herriko Plaza lepo beteko da igandean txupinazoa bizitzeko.

Ikerne Zarate

herribizia.errenteria.eus webgunean. Hortik aurrera bost egun jaiak bizi eta gozatzeko. Publiko guztiei erantzuteko 130 ekintzatik gora antolatu ditu jai batzordeak «herritik eta herriarentzat»: erakusketak, musika, antzerkia, kirol jarduerak, dantza, lehiaketak, eta dastaketa gastronomikoak, besteak beste. Horien guztien artean 65 musika emanaldiak izango dira.

### Jaietan ere eredugarri izateko deia

Otaegik, udalbatzaren izenean, dei egin die herritarrei ondo pasa, eta jaietan ere «herri eredugarri» izateko: «Ospatu dezagun garena errespetutik eta aniztasunetik, ardura hartuz jaiak eredugarri izan daitezen». Bide beretik egin du jai batzordeak; festak errespetuan eta libre bizitzera deitu ditu herritarrek: «Jaiak denen gozamenerako behar dute, erasorik gabeko madalenak ditugu helburu». Lepoko gorri-urdina janztera deitu dute: «Gozatzera, jaiak marraztuz, haietan parte hartuz, jai herrikoiak biziz». ■

te bi modu. Mila Koloretako Txupinazoa Txikia izango da guztietan lehena, 18:00etan Koldo Mitxelena plazan, eta gazteak batuko ditu Gernika plazan izango den holi txupinazoak. Txupi-

nazo nagusia lasaitasunetik bizi nahi dutenentzat, berriz, zuzenean ikusteko pantaila erraldoia jarriko du udalak zumardian. Zuzenean ikusteko aukera izango da, halaber, streaming bidez



## KALIMA

arropa eta osagarriak

@kalima\_errenteria

Biteri, 25., Errenteria-Oretea. Tel.: 943510372

Ondo pasa



madalenak!

**JAIETARAKO JANTZIAK:  
ZAPIAK, TXAPELAK, GERRIKOAK...**

Foru plaza, 21 . 943 511 887 . Errenteria



Gora madalenak!

## Aiton-Etxe EGUNEKO ZENTROA

DIPUTAZIOAREKIN HITZARTUTA  
PLAZA PRIBATUAK ERE BADITUGU

943 49 21 46 - 688 68 60 42 - OIARTZUN - [www.aitonetxe.com](http://www.aitonetxe.com)

# Konpromisoari eta inplikazioari herri aitortza

## IKERNE ZARATE GARTZIARENA

DYA elkarteak izango da aurtengo madalenetako omendua, eta haiek piztuko dute jaiei hasiera emango dien txupina. Lehenengoz herritar batzorde batek hartu du erabakia, gainera. Pozik hartu dute berria Erreterria-Oreretako DYako boluntarioek, irrikaz, txupina botatzearena une gogoangarria delako herritarrentzat, eta argi dute ahaztezina izango dela momentua, baita jaso duten aitortza ere. Boluntarioak dira Beñat Vizcaino Alonso eta Imanol Gonzalez Gomez, Fanderia eta Beraun auzokoak hurrenez hurren. Ilusioa aipatu dute biek ala biek: «Ilusio handiarekin hartu dugu omenduak izango garen berria, esker-

tzekoa da DYari egitea halako omenaldi eta aitortza. Herriak emandako babesa eta urte hauetan egindako lana eskertzea sekulakoa da, eta pertsonalki, erreterriarrak izanda, madalenak oso bereziak dira guretzat. Kristoren *txutea* eta ilusioa da. Eskertzekoa»

Hamabost urte daramatza Gonzalezek DYan boluntario lanak egiten, eta bederatzi Vizcainok. «16 urterekin hasi nintzen mendian, eta lehen sorospeneko ikastaro bat eginda animatu nintzen hasiera. Urte hauetan asko ikasi dut», dio Vizcainok. Harago jo du, eta haren ustez derrigorrezkoa behar luke denentzat lehen sorospen ikastaroa egitea: «Bat- batean sor daitezkeen egoeretan nola jokatu behar den jakiteak ikaragarri lagundu dezake. Betidanik gustatu

izan zait laguntzea». Elkarrekin udan antolatzen duen Gaztedi programaren bidez heldu zen DYara Gonzalez: «15 eta 18 urte arteko gazteek hartzen dute parte, nik egin nuen, eta egiten zen lana interesgarria irudituta boluntario aritzea erabaki nuen. Oso gustura nago». Mekaniko lanetan ari da Gonzalez; karate irakaslea da Vizcaino, eta sorosle dabil Hondarribian. Lanetik kanpoko orduak eskaintzen dizkiote biek, gainontzeko boluntarioek bezala, DYari.

Erpin ugariri erantzuten dio DYak. Gai sozialak lantzen dituzte, eta hala, adineko jendearekin akonpainamenduak egiten dituzte boluntarioek, baita Aspace elkartearekin ere. Osasun arreta ere eskaintzen dute anbulantziak, erreskateko taldea dute. Prebentzio lanak egiten dituzte mendi lasterketa eta kirol jardueretan, edota kontzertuetan, eta lehen sorospen ikastaroak zein horrekin lotutako mintegiak ere antolatzen ditu irabazi asmorik gabeko laguntza elkarteak: «Gaur egun gizarte zerbitzuak, erreskatea, anbulantziak eta formazioa lantzen ditugu».

## Mende erdia lanean

Mende erdi pasa du soinean Gipuzkoan DYak. 1973an sortu zen, eta hamar ordezkari ditu dena herrialdean. Erreterria-Oreretara geroago heldu zen, 1982an, duela 42 urte. Hasierako kokalekua Iztieta pasealekuan izan zuen, eta gaur egun Beraunen du, Norberto Almandoz kaleko 5. zenbakian. Gaur-gaurkoz hamasei boluntario ari dira udalerriko DYaren ordezkartzan



**Gora madalenak! Ongi pasa!**  
623 19 19 37  
Madalen kalea, 7. Erreterria-Orereta



**Ongi pasa madalenak!**  
**la coquine**  
La coquine deco | lacoquinedeco  
Foruen plaza 20, Erreterria - 943 90 57 74 - 610 32 54 16  
Dekorazioa eta altzariak

# CIFP DON BOSCO LHII



**DON BOSCO ALDEA LAN HIRIA**  
20100 Erreterria  
Tel.: 943 510 450  
donbosco@donbosco.eus  
www.donbosco.eus  
PAPER KALEA, 1  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 672 900



**Lanbide heziketa baino askoz gehiago**



2007

lanean. Zailena zer den galdetuta, boluntarioak urteak pasa ahala mantentzea dela nabarmendu dute biek, eta horren harira deia egin dute boluntario izan nahi dutenentzat: «Lehen sorospen ikastaroa egin behar da, hor gelditu daitezke, edo aurrerago jarraitu nahi dutenen kasuan, barne ikastaro bat egin behar dute anbulantziako materiala ondo kontrolatzeko. Arloaren arabera, gainera, eskaera eta prestaketa ezberdina da. Mendi erreskatean aritzeko, adibidez, soka, iparrorratza eta GPSaren gaineko prestaketa egiten da. Gizarte zerbitzuetan aritu nahi dutenek, berriz, eskalaren funtzionamendua ikasten dute. Arlo bakoitzak bere formazio propioa du».

Gutxieneko ordu kopuru bat eskatzen diete urtean boluntario izan nahi dutenei: 24 ordu.

### Txupina piztea, ohorea

Egiten duten lan boluntario horren alderik gogobetegarriena zein den zaltzarik ez du Vizcainok: «Laguntze



Gonzalez eta Vizcaino DYAren anbulantzian. Ikerne Zarate

hutsak ikaragarri betetzen nau. Jendearen esker ona izugarria da». Gazteei begira jarri da Gonzalez: «Boluntario aritzea musu-truk lan egitea da, eta jende gaztearentzat oro har pentsaezina da hori».

Txupinazoari begira zer edo zer berezia prestatu duten galdetuta ezetz

esan dute. Hori bai, ilusioa gainezka eramango dute soinean udaletzeko balkoira igotzen direnean. Bi boluntarioek garrantzi berezia eman diote omenduak izatea herri batzordeak aukeratu izanari, «segitzeko indarra ematen du horrek, eta ohore ikaragarria da. Oso eskertuta gaude». ■

**Lete**  
itzulpenak  
www.lete.net

administrazioa . publizitatea  
liburuak . enpresa

Tel.: 943 515 346 • lete@lete.net  
www.lete.net

**BIDEBIETA** autoeskola

- GIDABAIMENA A1,A2,A,B
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- KARRETILLA
- IKASTAROAK

Biteri kalea 20. Erreterria-Oreeta. Tel.: 943 515 050

**KABALA** GORA MADALENAK!

etxe - animalientzako pentsu eta osagarriak  
943 53 57 51 / 605 76 52 14  
Erdiko kalea 16. Erreterria. kabaladenda@gmail.com

**ATERPE** HIGIEZIN AGENTZIA

1986

Gozatu madalenak!

- Alokairuak eta Salmentak
- Bermea + Segurtasuna
- Aterpe Agentzia beti irtenbideak proposatzen

Tel.: 943 52 36 94  
www.aterpe.com

**MAITEXA**  
TABAKOAK-OPARIAK

Gora madalenak!

Bizente Elizegi, 3 . Erreterria . 943 51 21 10



Haizea Ruiz eta Markel Etxeberria OGAKo kideak. Ikerne Zarate

# Jai aurreko olinpikoa Gazte Egunarekin

## IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Aurreratuta datoz aurten madalenak. Igandean piztuko dute txupina, baina ohikoa baino egun bat lehenago helduko da jai giroa, eta ez nolanahi, gainera. Izan ere, Gazte Eguna egingo dute bihar OaingozHau dinamikaren barruan. OGA Oreretako Gazte Asanbladak antolatu ohi du ekainaren bueltan Gazte Eguna, baina

aurten, madalenen testuinguruan eta OaingozHau dinamikaren bueltan antolatzeko aukera ikusita, horren aldeko apustua egin dute, eta egitarau zabala ondu dute goizetik gauera. Erdigunea Lino Gunea izango dute gazteek, eta olinpiadak, herri bazkaria, akelarre feminista eta askotariko musika emanaldiak antolatu dituzte: Elektrokela, Etxepe, Herdoil, DJ Liatu Garete, Bixkor txaranga... Filibusters eta A Tercio Pelao izango dira Panier Gunean. Olinpiadak ez dira Linoko gunera mugatuko soilik, herrian barrena zabaltzea erabaki dute, eremu gehiagotara eramatea.

OGAKo kideak dira Markel Etxeberria eta Haizea Ruiz. Biak ari dira Gazte Egunaren antolaketan buru-belarri. Biharkoari «ilusioz» begira ari dira, gazte andana bilduko baitute. «Olinpiadetarako 250 lagunek eman dute izena, bazkarirako bezala —bazkarian parte hartzeko ezinbestekoa zuten gazte kuadrillek olinpiadetan parte hartzea—, eta aspaldian ez dugu hainbeste jende bildu egunera. Ez genuen egitaraua bazkarira eta arratsaldeko ekitaldietara mugatu nahi, egun oso zerbait izatea nahi genuen. Erantzunarekin oso pozik gaude», esan du Etxeberriak.

Gazte mugimenduaren osasun egoera ere izan dute hizpide bi gazteek. Argi mintzatu da Ruiz: «Gazteei antolakuntzara gerturatzeak bertigoa ematen dien susmoa dut. Jendeak interesa izan baduela uste dut, baina hurbiltzeak beldur ematen diola. Konpromisoa duen jende berria lanera sartzeari kosta egiten zaigu». Harago jo du Etxebe-

**albāsu**  
fisioterapia  
Olatz Oliveri Vesga

- Fisioterapia orokorra ·
- Minak eta kirol lesioak ·
- Erditzerako prestaketa ·
- Zoru pelbikoko tratamenduak eta erditze osteko lanketa ·

Santxo enea 11, Erretereria. Tel.: 640 20 10 77

**Kerala BAR**

## Gora madalenak!

**PINTXOAK - RAZIOAK - OGITARTEKOAK**  
Gamon Zumardia, 12 Erretereria • 943 55 86 25

# IES KOLDO MITXELENA BHI

## ESKOLA PUBLIKOA, KALITATEZKOA ETA GERTUKOA

Galtzaraborda etorbidea, 43.  
P.K. 20100 - Erretereria  
Tel.: 943 89 95 00  
www.koldomitxelena.com

### Etorkizunerako hazia ereiten



EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

riak: «Ekintzetara-eta animatzen da jendea, baina eguneroko konpromisoa hartzea kosta egiten zaio».

Biharko eguna, horiengana gerturatzeko modua izan daitekeela uste dute, eta Ruizek olinpiadak aipatu ditu ildo horretan: «Zaila izango da aurrera ateratzea, baina aurten helburu gisa gazteen artean harreman berriak sortzea jarri dugu, herria kuadrillaka banatuta dagoelako. Olinpiadak egokiak izango dira horretarako». Ez da jarri duten helburu bakarra, gizartearen gaineko hausnarketa ere piztu nahi omen dute, «kontzientzia sortu gazteen artean, eta biharko eguna, egokia izango da bi helburu horietarako».

### Kezkak asetzeko espazioa

Egunaren antolaketa lanak zailetik doazela aitortu du Etxeberrriak: «Olinpiaden barruan zazpi proba antolatu ditugu, hoguei lagun behar ditugu gutxienez horiek dinamizatzeke, eta zaila izaten ari da jendea lotzea». Antolaketan hamar lagun ari dira. Zaba-

la Enea II Gaztetxea ere hizpide izan dute bi gazteek. Egun 25 lagun ari dira horren bueltan lanean, baina kopuru hori bilera dinamikan 15 lagunera murrizten dela azaldu dute, «hala ere, ez dago gaizki kopuru hori». Etxeberrriak gaztetxera deitu ditu gazteak, dinamikarekin bat egitera, baita Ruizek ere: «Gaztetxea gazteen kezkak asetzeko eta gazteok gazteontzat egiten dugun espazioa da; parrandarako aukerak sortzen ditugu, baina gogoetarako es-

pazioak ere antolatzen ditugu tailerren bidez».

Gaztetxeak eta haren bueltan biltzen diren gazteek «kolorea» eta «bizitasuna» ematen diotela herriari erantsi du Etxeberrriak, «horrekin jarraitzeko, ordea, ezinbestekoa dugu jendea».

Olinpiadetan eta bazkarian parte hartzeko izen-ematea aspaldian itxi zuten; hala ere, antolatutakoak ikus-teko gerturatzerara deitu dituzte herriko gazteak. ■

**BOKATAK**  
**HAMBURGESAK**  
**SANDWICHAK**  
**ENTSALADAK**  
**PINTXOAK • RAZIOAK**



Gamon Zumardia 16  
 Erreterria-Oreeta  
 Tel.: 689 46 13 37

**EDURNE** Loradenda

Alfonso XI z/g - Niessen merkatalgunea - Tel.: 943 51 70 58

**PARIS**  
 MERTZERA  
 Gora Madalenak!

Herriko Plaza 7 Tel.: 943 52 46 87

**LANDARE**  
 HERRIKO TABERNA

@landare\_herrikotaberna

**Nagore Cabada**  
**HORTZ KLINIKA**

Gozatu madalenetan!  
 Egin irribarre!

Santa Klara plaza, 2. 20100 Erreterria.  
 Tel.: 943 017 876. klinikanc@gmail.com

# Luxuzko txistu kontzertua, luxuzko jaien iragarle

**IKERNE ZARATE GARTZIARENA**

**T**xistu doinuek zabalduko diete atea beste urtebetez madalenei. Garai berriko hamazazpigarren Madalen Aurreko Txistulari Kontzertua izango da ohi bezala jaien iragarle, eta aurten ere, gonbidatu berezi gorena izango da ahotsa jartzan: Eñaut Elorrieta gernikarra.

Halako gonbidatuen bidez, jende gaztea txistu mundura gerturatze-ko saiakera egiten dutela azaldu du Xabier Vesga Udal Txistulari Taldeko zuzendariak. Gainera, urtero, herriko elkarte edota eragile bat omentzen dute. Aurten, auzoetako emakume elkarteak izango dira omenduak, 40. urteurrena ospatzen ari direlako. Ez dira

omendu bakarrak izango, Juan Ignacio Iztueta dantza maisuak *Gipuzkoako dantza gogaingarriak* liburua argitaratu zuela 200 urte bete dira aurten, eta hari ere egingo baitiote aitortza. Txistulariek, Eñaut Elorrieta eta omenduko dituzten emakumeekin batera, Ereintza Dantza taldea, Eureka Dance, Zaria korua, eta metal boskotearen laguntza ere izango dute ekitaldian.

Emanaldi formaturako egokiak diren Ken 7 taldearen eta Eñaut Elorrietak bakarka egindako doinuak baliatuko dituzte emanaldirako Vesgak azaldu duenez, «sona duten abestiak dira». Horien moldaketak, Gazteria zinegotzi, Errenteria Musikaleko presidente, eta musikari eta irakaslea den Aitor Zorzanok egin ditu: «*Itsasoa gara kantua*



**2022an Fermin Muguruza aritu zen txistulari kontzertuan.** Aitor Odriozola

berak moldatu du. Txistu formatuan, metal boskotea, abesbatzarekin eta Eñaut Elorrietarekin egingo dutena, bertsio berria da».

Bestalde, emanaldi formatu berean Elorrietak Durangon egin duen kontzerturako ondutako moldaketak baliatuko dituztela biharko emanaldirako gaineratu du Zorzanok, eta balioan jarri du txistularien artean dagoen sarea. 40 txistulari izango dira oholtza gainean biharko emanaldi berezian; Errenteria-Oreretakoekin batera Oarsoaldeko beste herrietakoak eta Hondarribikoak.

Madalen Aurreko Txistulari Kontzertuak pisua hartu duen zalantzarik ez du Zorzanok. «Niretzako pregoia jaien parte da. Ziur naiz jende asko-asko gerturatuko dela bihar, are gehiago

**TATTOO**  
**PIERCING**  
**NAIZ**

Tatuajeak laserrarekin kentzen ditugu!  
**ongi pasa madalenak!**  
665 72 24 65  
Madalen kalea, 3. Orereta

**ARKATZA** Gutxi eta maiz, umore alaiz!  
taberna  
Gamon Zumardia • Tel.: 943 522 862 • ORERETA

**BEGI optika**  
biteri kalea, 34 - orereta-errenteria - tel 943 526 753

**OREKA**  
ENTZUMEN ZENTROA

**GORA MADALENAK!**

Haur eta helduentzat Terapia Estrategiko Laburra  
Banakako, bikote eta familia terapia

**JAKOBE PSIKOTERAPIA**  
620.12.24.29

Jakobe Batanero Alvarez  
Psikologoa GZ 1579  
Xenpelar kalea 6, solairuartea,  
5. bulegoa. Errenteria  
[www.jakobepsikoterapia.com](http://www.jakobepsikoterapia.com)





larunbata izanik». Kontzertua bera garrantzitsua dela dio, baina baita urtean zehar Udal Txistulari Taldeak egiten duen lana ere: «Aitortu egin behar zaie jaien atarian egiten duten kontzertu handia, baina baita astebururo urtean zehar auzoetan egiten dituzten dianak, kontzertu bereziak, edota auzoetako jaietan egiten dituzten emanaldiak ere. Horien guztien fruitua eta ginga da Madalen Aurreko Txistulari Kontzertua».

Bihar, gozatzeko eta jaietan buru-belarri sartzeko gisako kontzertua eskainiko dutela Zumardian esan du Udal Txistulari Taldeko zuzendariak: «Txistua protagonista, Eñaut Elorrietaren ahots bikainaz lagunduta eta herriko eragileek egingo duten ekarpenarekin emanaldi ederra eskainiko dugu. Ereintzarekin elkarlanean koreografia prestatu dute auzoetako emakume elkarrekin. Distira are berezia-

goa emango diote horiek emanaldiari».

Zumardiak hartuko du kontzertua, 20:00etan hasita. Hura eroso jarraitzeko 500 lagunentzako aulkiak jarriko dituzte aurten ere. Horietaz gain, jende asko-askok egiten du bat zutik Zumardia lepo betetzeraino: «Aurten, gainera, eguraldi ona iragarria dago momentuz —erantsi du Zorzanok— eta hori garrantzitsua da, azken urteetan euria izan baitugu».

### Herrikoia eta modernoa uztartuta

Txistuaren osasun egoeraren gainean galdetuta, nahiko lituzketenak baino ikasle gutxiago dituztela instrumentu hori lantzen aitortu du Vesgak: «Batzuetan moda kontuak izaten dira. Datorren ikasturteari begira jende

gaztea erakartzeko plangintza osatzen ari gara, ea txistuaren har hori sartzea lortzen dugun».

Biharko emanaldia horretarako tresna «ezin hobea» dela sinistuta dago Zorzano: «Musika herrikoia eta modernoagoa uztartzen du, aurten Eñaut Elorrieta dator, baina datorren urtean zeinek daki zein artista gonbidatuko dugun. Mezu garrantzitsua transmititzen ari gara: txistuak balio duela edozein erregistroan aritzeko».

Herritarrek parte hartzea deitu dituzte: «Publiko guztietarako emanaldia da, Xanti eta Maialen izango dira Iztuetaren dantza bat egiten, adinekoak erruz etortzen dira, eta gazteen zako modukoa izango da dugun gonbidatu bereziarekin». ■

Martin Etxeberria kalea 4  
Erretera  
Tel.: 943 52 55 84

Tejidos  
**Ami**  
Oihalak

**GORA MADALENAK!**

**Esther Sagasti Orodea**  
**Ana Elizondo Iriarte**  
Barne Diseinua

Santxoenea 31. Erretera. 679 70 39 44 - 605 76 53 16  
www.sagastielizondodecoracion.com

**ERRETERIA**  
NIESSEN MERKATALGUNEA

Erreteriako Azoka, 12 - Tel.: 943 51 63 13  
BERAUN. Aita Donosti, 6 - Tel.: 943 51 93 21  
IZTIETA. Oartzun kalea, 11 - Tel.: 943 34 10 67  
FANDERIA. Fanderia etorbidea, 17 - Tel.: 943 34 15 55

www.iparaseguroak.com

**IPAR**  
aseguroak

Nafarroa etorbidea, 75 - behe  
Erretera. Tel.: 943 34 11 27

**TELLERI-ALDE IKASTETXEA**  
**COLEGIO SAGRADO CORAZON**  
Hermanos del Sagrado Corazón

**Gora Bihotzak!**  
**Gora Madalenak!**

- 2 - 16 urte
- Hiru-urteko
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Jangela (bertan prestatutako janaria)
- Hautzaindegia 07:30etik 09:00etara
- Mendi taldea
- Eskola kirola
- Sputnik aisialdi taldea

Bittor Idiazabal, 1 20100 Erretera (Gipuzkoa).  
Tel.: 943 51 12 33 . Faxe: 943 51 20 95 . www.tellerialde.com

# Enbor gaineko orekariak, ikurrin bila

## IKERNE ZARATE GARTZIARENA

Oiartzun ibaiaren bueltan ikusmina nagusi izango da asteazkenean, hilak 24. Urtero bezala dozenaka eta dozenaka herritar bilduko dira Panier gune ingurura kukañaz disfrutatu eta ikurrinaren bila funanbulisten pare abiatuko diren ausarten abilezia eta erorketekin gozatzera. Kable edo soka finaren orde, gantzarekin erruz koipeztatutako enborra izango dute oin azpian.



## Joan den urteko madalenetako kukañaren irudi bat.

Ikerne Zarate

OaingozHauk eta jai batzordeak elkarlanean antolatuta, kukañak jai egitaraua «osagarritzeaz» gainera, Oiartzun ibaia berreskuratzea du helburu antolatzaile lanetan ari den Idoia Arbelaitzek azaldu duenez: «Oiartzun ibaia bada herriaren parte, eta ibai horrek gure identitatea ere markatzen du. Helburu nagusia ibaia berreskuratzea zen, eta horrekin batera lortu dugu ikusmin ikaragarria zabaltzea kukañaren bueltan». Natura festarekin uztartzeko saiakerak, zalantzarik gabe, emaitza paregabea eman die, ikusle kopuruari erreparatuta bederen.

Kukañaren lehen ekitalditik aurtengora Oiartzun ibaiaren beraren egoera asko aldatu dela jarri du nabarmen Arbelaitzek. «Urtetik urtera sumatzen da, hamarkada batean zer esanik ez. Adinean gora goazenontzat aldea dago ibaiaren ondotik pasa eta sudurra es-tali behar genuen txikitako garaia eta gaur egungoa alderatuta. Hondoan bertzen hasia da, oxigenoa du ibaiak, bizitza bada bertan».

Kukañan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute Panier Gunean bertan, hasi baino ordu erdi lehenago, «18:30ean zabalduko dugu izen ematea». Parte hartzaile aldetik, urtero hamabi bat lagun animatzen direla azaldu du Arbelaitzek, eta pun-

**OTORDU**  
PLATER PRESTATUAK

Tel.: 943 52 97 26  
Andre Mari kalea, 17.  
Errenteria-Orereta

www.oarsoak.com

# Beerlagun

UGALDETXXO INDUSTRIAGUNEA - ZUAZNABAR KALEA 137. OIARTZUN  
TEL. 943 49 01 62. oarsoak@oarsoak.com

**Oiartzo** IKASTOLA  
etorkizunerako bidelagun

**Gora Madalenak  
Eta biba zuek,  
gazteak!**

www.oiartzoikastola.eus

**AUPA  
MADALENAK!**

**IZARRA**  
AKADEMIA  
ENGLISH

www.academiaizarra.com  
Nafarroa Etorbidea, 59 behea  
20.100 Errenteria  
Tel. 943 517 340

tu horretara iritsita hausnarketarako bidea zabaldu nahi izan du oreretarrak: «Gehiengo gizonak izaten dira, emakume bakarra izan zen iaz, eta aprobetxatu nahi dut emakumeak parte hartzera animatzeko».

Saria aurten ere 300 eurokoa ikurrina hartzen duen gizonarentzat, eta beste hainbeste emakumearentzat. Altxorra den ikurrina hartzen duten parte hartzaile bat baino gehiago dagoenean kategoria bakoitzean, hura hartu eta lehorrera ateratzen denbora gutxien ematen duen partaidearentzat da saria; komenigarria da, beraz, hartu bezain pronto, igerian Panier gune aldera egin eta lehorrera ateratzea epaimahaia dagoen lekura ikurrina eramateko.

Ez dira bi horiek sari bakarrak; erorketa onenaren saria ere badago. Errenkoalderen bonua eta HITZaren urtebeteko harpidetza jasoko ditu opari eroriko eleganteena egiten duen parte hartzaileak.

### Anekdotak ugari

Kukañak une gogoangarri ugari utzi ditu orain arte, eta anekdotak ere ez dira falta: «Izen ematea bukatzeaz zegoela eta kukañari heldu behar geniola bi gazte azaldu ziren, etorri berriak. Hala moduz azaldu genizkien baldintzak ulertzeko modurik ez genuelako, tartean itzultzaile bat izan zen. Izena eman zuten, eta haietako bat ikurrin bila abiatu zenean, uretara erori eta ikusleatariko batzuk ohartu ziren mutilak ez zekiela igerian. Beste partaide batzuk salto egin zuten uretara hura ateratzera». Parte hartzaileei go-

gorarazpena: ezinbestekoa da igerian jakitea.

Arbelaitzek argi utzi du ekitaldian segurtasun neurri guztiak zorrotz betetzen direla parte hartzaileen segurtasuna zaintzeko.

Madalenetako kukañaren oihartzuna zabaltzen hasi delako ere pozik Arbelaitz: «Pasai Donibanetik deitu gaituzte antolaketaren gainekoak galdetzeko, han ere egin nahi dutelako San Pantaleon egunean. Polita da oso zabaltzen

doala ikustea». Parte hartzaileak ezinbestekoak dira, haiek dira protagonista nagusiak, baina zuzeneko kontaktak ere aberasten du ekitaldia. Aurten ere ez du hutsik egingo Borja Arbelaitzek, eta urtero moduan, gatza eta piperra jarriko dio esatari handiak kukañari.

Eskerrak eman dizkie Arbelaitzek laguntzen aritzen diren guztiei: «Hibaika Arraun Elkarteko Karlos Rodriguez eta Maika Tameroni, eta Gurutze Gorriari eskerririk asko bihotzez». ■

**ONGI ETORRI CLINICAUDIOra,  
KONFIDANTZAZKO ZURE  
ENTZUMEN ZENTRORA.**

Erreserbatu zure doako entzumen azterketa eta ezagutu gure udako eskaintzak

📍 Biteri Kalea 27, 20100 Errenteria, Gipuzkoa

☎ 943 94 76 36 / 672 51 64 33

**BENETAN**  
CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUA

**ONGI PASA  
MADALENETAN!**

**ASEGURUA**  
Tel.: 943 34 49 40  
benetan@benetan.net

Biteri, 17, behea.  
**ERRETERIA**  
(sarrera Morrongilleta kaletik)

**AFINSE**  
SERVICIO INTEGRAL DE ADMINISTRACIÓN DE FINCAS

**FINKA-ADMINISTRAZIOA**  
Tel.: 943 34 49 42 / afinse@afinse.com

**OBEA-2  
ORTOPEDIA**

BIDASOA, 3  
MUSIKA PLAZA  
TEL.: 943 52 93 01  
ERRETERIA-ORERETA

ongi pasa madalenak!  
Gure azken madalenak!

**SINDIKATO TABERNA**

erna sindikato taberna sindikato taberna sindikato taberna sindikato taberna sindikato

**Mila esker denagatik eta agur bero bat!**

# Albistur Gora madalenak!!

Mantentze eta berritze-lanak

**ALBISTUR ERAIKUNTZAK**

*Proiektu eta berrikuntza orokorrak - Arreta pertsonalizatua*

**BULEGOAK:** Biteri kalea 3, behea . **SUKALDEEN ESPOSIZIOA:** Biteri kalea 2, behea  
943 52 78 01 - 665 727 764 - [www.albistur.es](http://www.albistur.es)



# JAKIN S.L.

AHOLKULARITZA  
ASEGURUAK  
ERA GUZTIETAKO  
GESTIOAK

[www.jakinservicios.com](http://www.jakinservicios.com)

Morrongilleta 11-13. 270 Posta kutxa. Errenteria. Tel.: 943 51 96 88 - 943 52 75 32. Faxe: 943 51 60 04

EUSKAL  
ESKOLA  
PUBLIKOAZ  
HARRO!

## ONGI PASA MADALENAK!

Errenteriako Euskal Eskola Publikoak



 **Bizarrain**  
ikastola

HH-LH 943-34 16 45 BHI 943-89 94 13

 **Cristobal Gamon HLHI**  
943-89 91 38

 **Cristobal Gamon BHI**  
943-89 94 41

 **KOLDO MITXELENA**  
Herri Ikastetxea  
943-89 91 87

 **KOLDO MITXELENA BHI**  
943-89 95 00

# Madalenak ERRENTERIA 2024

UZTAILAK 21-25 DE JULIO

## 20

TXISTULARI KONTZERTU  
NAGUSIA  
+ EÑAUT ELORRIETA

20:00  
ZUMARDIA

## 21

EIRE  
22:30  
MERTATU ZAHAR GUNEA

DELIRIUM  
TREMENS

01:00  
ZUMARDIA

## 22

ZILIBITO RECORDS

23:15  
ERRIOLA GUNEA

LEIZE

01:00  
ZUMARDIA

## 23

RODEO

22:30  
MERTATU ZAHAR GUNEA

SUKENA

23:00  
LINO GUNEA

OIHAN VEGA

00:00  
ZUMARDIA

## 24

OLGETAN ERROMERIA

20:00  
GERNIKA PLAZA

ANJE DUHALDE

00:00  
ERRIOLA GUNEA

LA PERRA BLANCO

00:30  
ZUMARDIA

## 25

KALAKAN

19:00  
XABIER OLASKOAGA PLAZA

ILARGI

21:00  
PANIER GUNEA



ERRENTERIA  
UDALA



madalenak

KULTURA  
kreatiboa